

ALOKABIDE, IHOBE, URA, VISESA ETA JESUS GURIDI KONTSERBATORIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO XVI. FOROAN ELKARLANEAN ARITZEKO.	CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE ALOKABIDE, IHOBE, URA, VISESA Y CONSERVATORIO JESUS GURIDI PARA COLABORAR EN EL XVI FORO DE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES.
Gasteiz, 2019ko irailaren 30a HONAKO HAUEK BILDU DIRA	En Gasteiz, 30 de septiembre de 2019 REUNIDOS
Bestetik, Patricia Val Hebia andrea, ALOKABIDE SA alokairu publikoa kudeatzeko sozietate publikoko zuzendari nagusia, sozietate horren izenean eta hura ordezkatzuz. Bestetik, Jesús Losada Besteiro jauna, IHOBE SA Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoko zuzendari nagusia, sozietate horren izenean eta hura ordezkatzuz, eta hitzarmen hau sinatzeko ahalmena izanik. Bestetik, Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta jauna, Uraren Euskal Agentziako (URA) zuzendari nagusia, erakunde horren izenean eta hura ordezkatzuz, eta hitzarmen hau sinatzeko ahalmena izanik. Bestetik, Carlos Quindós Fernández jauna, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra Eako (VISESA) zuzendari nagusia, erakunde horren izenean eta hura ordezkatzuz, eta hitzarmen hau sinatzeko ahalmena izanik. Bestetik, Puy Asurmendi Telleria andrea, Gasteizko Jesús Guridi Kontserbatorioko zuzendaria, erakunde horren izenean eta hura ordezkatzuz, eta hitzarmen hau	De otra, D. ° Patricia Val Hebia, Directora General de ALOKABIDE S.A, Sociedad Pública de Gestión de Alquiler Público, quien actúa en nombre y representación de la misma. De otra, D. Jesús Losada Besteiro, Director General de IHOBE S.A, Sociedad Pública de Gestión Ambiental, quien actúa en nombre y representación de la misma y facultado para la suscripción del presente Convenio. De otra parte, D. Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta, Director General de la Agencia Vasca del Agua (URA), actuando en nombre y representación de dicho Organismo, y facultado para la suscripción del presente Convenio. De otra parte, D. Carlos Quindós Fernández, Director General de Vivienda y Suelo de Euskadi S.A. (VISESA), actuando en nombre y representación de dicho Organismo, y facultado para la suscripción del presente Convenio. De otra parte, D.° Puy Asurmendi Telleria, Directora del Conservatorio Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz actuando en nombre y representación de dicho Organismo,

sinatzeko ahalmena izanik.	y facultado para la suscripción del presente Convenio.
Alderdi guztiek, nork bere partaidetza-motan, lankidetzahitzarmen hau sinatzeko gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE	Todas las partes, en la calidad en la que intervienen, se reconocen capacidad jurídica suficiente para la suscripción del presente Convenio de Colaboración y, a tal efecto, EXPONEN
Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikita daude Alokabide, Ihobe, Ura eta Visesa. Jesús Guridi Kontserbatorioa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko zentroa da. Bigarrena.- Alokabidek, Ihobek, Urak eta Visesak, beren helburuak betetzeko, berdintasun-plan bat dute, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko ekimenak egiten dituzte. Hirugarrena.- Alokabidek, Ihobek, Urak, Visesak eta Jesús Guridi Kontserbatorioak interes handikotzat jotzen dute erakunde horien arteko lankidetzak, eta beren helburua da emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko baterako jarduketa bat egitea. Laugarrena.- Berdintasun Foroaren esparruan jarduera bat egitea proposatu dute. Emakunde buru duen urteroko topagunea da Berdintasun Foroa, eta, han, entitate publiko eta pribatuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko beren ekimenetako batzuk egiten dituzte. Aurtan, 2019ko urriaren 9tik abenduaren 13ra bitartean egingo	Primero.- Alokabide, Ihobe, Ura y Visesa, están adscritas al departamento Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco. El Conservatorio Jesús Guridi es un centro dependiente del departamento de Educación del Gobierno Vasco. Segundo.- Alokabide, Ihobe, Ura, Visesa, para el cumplimiento de sus fines, cuentan con un plan de Igualdad y adoptan iniciativas que fomentan la igualdad entre mujeres y hombres. Tercero.- Alokabide, Ihobe, Ura, Visesa, y el Conservatorio Jesús Guridi, consideran de gran interés la colaboración entre ellas y se proponen realizar una actuación conjunta en apoyo a la igualdad entre mujeres y hombres. Cuarto.- Proponen realizar una actividad dentro del marco del Foro de la Igualdad, un espacio de encuentro anual liderado por Emakunde, en el que entidades públicas y privadas desarrollan algunas de sus iniciativas a favor de la igualdad de mujeres y hombres y que este año se celebrará entre el 9 de octubre y el 13 de diciembre de 2019 bajo el lema de "seré quien yo

da, "Erabakitzen dudana izango naiz" lemapean. Hori guztia dela eta, sinatzen duten alderdiek honako klausula hauek adosten dituzte: KLAUSULAK	decida". Por todo ello, las partes firmantes acuerdan las siguientes CLÁUSULAS
Lehenengoa. Xedea Hitzarmen honen xedea da Alokabide, Ihobe, Ura, Visesa eta Jesús Guridi Kontserbatorioaren arteko lankidetzaz-ildoak ezartzea, Berdintasun Foroaren esparruan proposatutako ekimena burutzeko. Hona hemen proposatutako ekimena: IZENBURUA: ARGITARAGABEAK: XIX.-XX. mendeko emakume konpositoreen ahots ezkutua. DATA: 2019ko azaroan 4an Eguna zehazteke. ORDUA: 19:30 NON: Gasteizko Jesús Guridi Musika Kontserbatorioan. HIZKUNTZA: Gaztelania. JARDUERA-MOTA: Musika-kontzertua. Emakume izateagatik bizirik zeuden bitartean aitorpen profesionalik jaso ez zuten zenbait emakumeri buruzko lana da <i>Argitaragabeak</i>. Haien musika ezkutatuta egon da, artxiboetako apalategietan, berriz noiz entzungo zain, gure ondare kultural eta musikaren zati bat izan arren. Jarduera honen bitartez, ikusarazi nahi dira emakumeek beren ametsak eta jarduera profesionala betetzeko	Primera. Objeto. El objeto del presente convenio es establecer las líneas de colaboración entre Alokabide, Ihobe, Ura, Visesa, y el Conservatorio Jesús Guridi para materializar la iniciativa propuesta en el marco del Foro de la Igualdad. Se propone que la iniciativa sea la siguiente: TÍTULO: INÉDITAS: La voz oculta de la mujer compositora en el s. XIX-XX. FECHA: 4 Noviembre 2019 HORA: Hora de comienzo 19:30 LUGAR: Conservatorio de Música Jesús Guridi de Vitoria Gasteiz IDIOMA: Castellano TIPO DE ACTIVIDAD: concierto de música Inéditas es la obra de mujeres, que por el simple hecho de ser mujeres, carecieron de reconocimiento profesional en vida. Su música ha permanecido oculta en las baldas de archivos esperando volver a ser escuchadas, a pesar de ser parte de nuestro patrimonio cultural y musical. Esta actividad pretende exponer la dificultad de las mujeres para el desarrollo de sus sueños y actividad

dituzten zailtasunak. Kontzertu honek erdigunean jartzen ditu emakume konpositoreak, ikusarazteko... eta entzunarazteko. Eugenia Boix sopranoa, Teresa Valente biolontxelo-jotzailea eta Susana García de Salazar piano-jotzaileak aukeratutako erreperorioa, aldarikatu behar ditugun lau emakumezko egilerena, interpretatuko dute: Julia Adrienne Carricaburu Roger, Emma Chacón, Emiliana Zubeldia eta Anita Idiartborde-rena. Ikuskizunean, gainera, Carmen San Esteban aktoreak parte hartuko du.	profesional. Este concierto pone el foco sobre mujeres compositoras para hacerlas visibles...y audibles. La soprano Eugenia Boix, la violonchelista Teresa Valente y la pianista Susana García de Salazar interpretarán un repertorio escogido de cuatro autoras que debemos reivindicar: Julia Adrienne Carricaburu y Roger, Emma Chacón, Emiliana de Zubeldia y Anita Idiartborde. El espectáculo contará, además, con la participación de la actriz Carmen San Esteban.
Bigarrena.- Hitzarmenaren esparruan egin beharreko jarduketak Hona hemen berdintasun-arloko ekimena burutzeko egin beharreko jarduketak: - Berdintasun Foroan jardueraren alta eman eta haren jarraipena egin Emakunderekin. - Jardueraren zabalkundea: Emakunderen konpromisoa da foroaren egitarauaren zabalkundea egitea. Aitzitik, hitzarmenari atxikitako enpresek ekimenaren zabalkundea egin dezakete, alderdiak ados jarri ondoren. - Jardueraren kontratazioa: Argitaragabeak-en kontratazioa. - Jarduera behar bezala aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabide materialak eta teknikoak jarri.	Segunda.- Actuaciones a desarrollar en el marco del convenio Las distintas actuaciones necesarias al objeto de materializar la iniciativa en materia de igualdad son las siguientes: - Gestionar el alta de la actividad en el Foro de la Igualdad y hacer seguimiento de la misma con Emakunde. - Difusión de la actividad: Emakunde se compromete a realizar la difusión del programa del foro, no obstante las empresas adscritas al convenio, podrán hacer difusión de la iniciativa, previo acuerdo entre las partes. - Contratación de la Actividad: Contratación de Inéditas. - Puesta a disposición de los medios materiales y técnicos necesarios para el correcto desarrollo de la actividad.


- Gonbidapenak banatu: alderdiek adostutakoari jarraituz banatuko dira. - Ekitaldiari hasiera ematea: alderdiek adostuko dute nork egingo duen ekitaldiaren aurkezpena, eta zein izango den gidoia.	- Distribución de las invitaciones: la forma de distribución se realizará según acuerden las partes. - Apertura del Evento: las partes acordarán la persona que presentará el evento así como el guion.
Hirugarrena. ALOKABIDEren konpromisoak a) Alokabidek, Pertsonen eta Zerbitzuen zuzendari Rosa Labradorren bitartez, proiektua gauzatzeko, zabalkundea egiteko, gonbidapenak banatzeko eta ekitaldiari hasiera emateko beharrezkoak diren izapideak eta akordioak kudeatuko ditu. b) Alokabidek proiektuaren finantzaketan parte hartzeko konpromisoa hartzen du. Horrenbestez, haren kostuaren laurdena ordainduko du, 950 euro (3.800/4) aurreikuspenen arabera.	Tercera. Compromisos de ALOKABIDE a) Alokabide, a través de la directora de Personas y Servicios, Rosa Labrador, gestionará las tramitaciones y acuerdos necesarios para la materialización del proyecto y eminentemente en la difusión, reparto de invitaciones y acto de apertura del evento. b) Alokabide se compromete a participar en la financiación del proyecto, asumiendo una cuarta parte del coste del mismo y que está previsto que ascienda a 950 euros (3.800/4).
Laugarrena. Uraren Euskal Agentziaren konpromisoak a) Uraren Euskal Agentziak, Administrazio eta Zerbitzuen zuzendari María López de Herediaren bitartez, proiektua gauzatzeko, zabalkundea egiteko, gonbidapenak banatzeko eta ekitaldiari hasiera emateko beharrezkoak diren izapideak eta akordioak kudeatuko ditu.	Cuarta. Compromisos de la Agencia Vasca del Agua a) La Agencia Vasca del Agua, a través de la directora de administración y servicios, María López de Heredia, gestionará las tramitaciones y acuerdos necesarios para la materialización del proyecto y eminentemente en la difusión, reparto de invitaciones y acto de apertura del evento.

b) Uraren Euskal Agentziak proiektuaren finantzaketan parte hartzeko konpromisoa hartzen du. Horrenbestez, haren kostuaren laurdena ordainduko du, 950 euro (3.800/4) aurreikuspenen arabera.	b) La Agencia Vasca del Agua se compromete a participar en la financiación del proyecto, asumiendo una cuarta parte del coste del mismo y que está previsto que ascienda a 950 euros (3.800/4).
Bosgarrena. IHOBEren konpromisoak a) IHOBEk, Finantzaketako arduradun Antonio Castejónen bitartez, proiektua gauzatzeko, zabalkundea egiteko, gonbidapenak banatzeko eta ekitaldiari hasiera emateko beharrezkoak diren izapideak eta akordioak kudeatuko ditu. b) IHOBEk proiektuaren finantzaketan parte hartzeko konpromisoa hartzen du. Horrenbestez, haren kostuaren laurdena ordainduko du, 950 euro (3.800/4) aurreikuspenen arabera.	Quinta. Compromisos de IHOBE a) IHOBE a través del Responsable Financiero Antonio Castejón, gestionará las tramitaciones y acuerdos necesarios para la materialización del proyecto y eminentemente en la difusión, reparto de invitaciones y acto de apertura del evento. b) IHOBE se compromete a participar en la financiación del proyecto, asumiendo una cuarta parte del coste del mismo y que está previsto que ascienda a 950 euros (3.800/4).
Seigarrena. VISESAren konpromisoak a) VISESAk, Pertsonen eta Zerbitzu Orokorraren zuzendari Paz Torquemadaren bitartez, proiektua gauzatzeko, zabalkundea egiteko, gonbidapenak banatzeko eta ekitaldiari hasiera emateko beharrezkoak diren izapideak eta akordioak kudeatuko ditu. b) VISESAk Argitaragabeak ikuskizunaren kontratazioa kudeatuko du, alderdien arabera.	Sexta. Compromisos de VISESA a) VISESA a través de la Directora de Personas y Servicios Generales, Paz Torquemada, gestionará las tramitaciones y acuerdos necesarios para la materialización del proyecto y eminentemente en la difusión, reparto de invitaciones y acto de apertura del evento. b) VISESA gestionará la contratación del espectáculo

artean adostutakoari jarraituz. c) VISESAk Emakunderekiko harremana kudeatuko du, betiere hitzarmen honen parte diren eta lankidetzan diharduten 5 entitateen izenean. d) VISESAk proiektuaren finantzaketan parte hartzeko konpromisoa hartzen du. Horrenbestez, haren kostuaren laurdena ordainduko du, 950 euro (3.800/4) aurreikuspenen arabera.	"Inéditas" según lo establecido entre las partes. c) VISESA gestionará las relaciones con Emakunde siempre en nombre de las 5 entidades colaboradoras y parte del presente convenio. d) VISESA se compromete a participar en la financiación del proyecto, asumiendo una cuarta parte del coste del mismo y que está previsto que ascienda a 950 euros (3.800/4).
Zazpigarrena. Jesús Guridi Kontserbatorioaren konpromisoak a) Kontserbatorioak, zentroko zuzendari Puy Asurmendi Telleriaren bitartez, proiektua gauzatzeko, zabalkundea egiteko, gonbidapenak banatzeko eta ekitaldiari hasiera emateko beharrezkoak diren izapideak eta akordioak kudeatuko ditu. b) Kontserbatorioak areto nagusia jarriko du, erabil dadin. Areto horrek 550 lagunentzako edukiera du. c) Kontserbatorioak aretoa lagako du, entseguak egin daitezen, bakar-bakarrik ikuskizunaren egunean. d) Kontzertua egiteko behar diren kontserbatorioko instrumentuak bi aste lehenago eskatuko dira. Instrumentu horietan esku-hartze zehatzak egin behar	Séptima. Compromisos del Conservatorio Jesús Guridi a) El conservatorio a través de la Directora del centro, Puy Asurmendi Telleria, gestionará las tramitaciones y acuerdos necesarios para la materialización del proyecto y eminentemente en la difusión, reparto de invitaciones y acto de apertura del evento. b) El conservatorio pondrá a disposición el aula magna con aforo para 550 personas. c) El conservatorio cederá la sala para ensayos exclusivamente durante el día del espectáculo. d) El instrumental del conservatorio necesario para la realización del concierto será solicitado con dos semanas de antelación. Si fuese necesaria realizar

izanez gero, kontserbatorioko zuzendariak oniritzia eman beharko du, eta interpreteek ordainduko dituzte esku-hartzeak dakartzan gastuak. e) Kontserbatorioak teknikariak jarriko ditu, honako hauek nagusiki: instrumentuak afinatzeko langileak, soinu-teknikariak, eta administrariak, ekitaldia ondo atera dadin.	intervenciones específicas en dicho instrumental, dicha intervención debe tener el visto bueno de la dirección del conservatorio siendo los gastos generados asumidos por los intérpretes. e) El conservatorio pondrá a disposición personal técnico entre los que destacamos personal para afinación instrumental y personal técnico en sonido así como personal de administración para el correcto desarrollo del acto.
Zortzigarrena. Jarraipen Batzordea Hitzarmena sinatzen duten alderdien ordezkari banak osatutako batzordea eratuko da (aurrerantzean, "Jarraipen Batzordea"), hitzarmen honen xede diren jarduketan jarraipena egiteko eta haiek ebaluatzeko. Jarraipen Batzordea gutxienez behin bilduko da, egokiak iruditzen zaizkion kontuak adosteko. Honatx batzorde horren egitekoak: hitzarmen hau interpretatu eta betetzeko orduan sor daitezkeen arazoei irtenbidea ematea, jarraipena egitea hitzarmenean aurreikusitako jarduketak behar bezala gauzatzen ote diren ikusteko, eta dagozkion irizpideak eta moduak ezartzea alderdiek elkarri beren konpromisoen berri emateko eta horiek ongi betetzeko.	Octava. Comisión de Seguimiento. Se creará una comisión formada por un representante de cada una de las partes firmantes del convenio (en adelante la "Comisión de Seguimiento") para el seguimiento y evaluación del desarrollo de las actuaciones objeto de este convenio. La Comisión de Seguimiento se reunirá al menos una vez para acordar las cuestiones que consideren oportunas. Sus funciones serán las de resolver cuantas cuestiones pueda plantear la interpretación y el cumplimiento del presente Convenio, así como las de llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el mismo, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.
Bederatzigarrena. Jabetza intelektualaren eskubideak Proiektuaren esparruan sortutako	Novena. Derechos de propiedad intelectual Todos los productos (materiales o

produktu guztiak (material zein immaterialak) proiektuaren bazkideenak dira oso-osorik, hau da, hitzarmen honen sinatzaileenak. Bete-betea errespetatu behar dira sinatzaileek aurretik zituzten jabetza intelektualaren eskubideak, baldin eta proiektuaren esku jarri bazuten horrelakorik.	inmateriales), creados en el marco del proyecto pertenecen en su integridad a los socios del proyecto, entendiendo a tales como los firmantes del presente convenio. Los derechos de propiedad intelectual preexistentes, y que en su caso fuesen puestos a disposición del proyecto, por alguno de los firmantes, han de ser respetados plenamente.
Hamargarrena. Hitzarmenaren ondorioak eta iraupena Hitzarmen honek sinatzen den unetik harik eta ekitaldiaren egunetik hilabete igaro arte izango ditu ondorioak.	Décima. Efectos y duración del Convenio. El convenio surtirá efectos desde su firma y hasta transcurrido un mes desde la fecha del evento.
Hamaikagarrena. Hitzarmena aldatu eta azkentzea Hitzarmena aurreko klausulan aipatutako indarraldia igarotakoan azkenduko da, edo, bestela, hura suntsiaraztearen ondorioz. Alderdietakoren batek ez badu hitzarmena betetzen, beste alderdiek ahalmena izango dute hura zorrotz bete dadin exijitzeko, edo hitzarmena suntsiarazteko eskatzeko.	Undécima. Modificación y extinción del Convenio. El convenio se extinguirá por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior o por resolución. El incumplimiento por alguna de las partes facultará a la otra para exigir su estricto cumplimiento o para solicitar la resolución del convenio.
Halaber, alderdiek edozein unetan alda dezakete hitzarmen hau, elkarrekin ados jarrita. Aldaketa idatziz egin beharko da, eta hitzarmen honen eranskin gisa jaso. Eta, ezarritakoarekin bat etorritik, agertutakoek hitzarmen honen bi kopia sinatzen dituzte, agiri honen goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.	Asimismo, las partes podrán modificar el presente convenio de mutuo acuerdo en cualquier momento. Tal modificación deberá realizarse por escrito y recogida en anexo al presente convenio. Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes por duplicado en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

ALOKABIDE  Patricia Val Hevia	URAREN EUSKAL AGENTZIA / AGENCIA VASCA DEL AGUA  Ernesto Martínez de Cabredo
VIKESA  Carlos Quindós Fernández	IHOBE  Jesús Losada Besteiro
JESUS GURIDI KONTSERBATORIOA / CONSERVATORIO JESUS GURIDI  Puy Asurmendi Telleria	